

Lege-oharra, erabilera-baldintzak eta pribatutasun-politika

Lege-informazioa

Behar bezala betetzeko uztailearen 11ko 34/2002 Legeak, Informazioaren Gizarteari eta Merkataritza Elektronikoa buruzkoak, arautzen duena, jakinarazten dizugu Fundación Respeto Fundazioa (G84429042) dela www.respetofundacion.org domeinuaren jabea. Euskadiko Fundazioen Erregistroan inskribatuta dago Fundazioa, eta hau da haren helbidea: Peña y Goñi, 9, 4. ezk., 20002 Donostia - San Sebastián (Gipuzkoa); posta elektronikoa: respeto@respetofundacion.org.

1. Baldintza orokorrak

Fundación Respeto Fundazioa da www.respetofundacion.org webgunearen (hemendik aurrera, “webgunea”) titularra. Borondatez sartzen dira erabiltzaileak webgune horretan. Doako sarbidea du webguneak. Webgunean nabigatzean, ezagutu eta onartu egiten dira haren lege-oharrak, erabilera-baldintza eta -terminoak, eta pribatutasun-politika. Erabiltzailea ados ez baldin badago erabilera-baldintza hauekin eta adostasunik ematen ez baldin badu, ezingo du webgune hau erabili.

Erabiltzailearena, eta harena soili-soilik, izango da webgune honetara sartzearen eta webguneak dakarren informazioaren erabileraren ondoriozko erantzukizuna. Erabiltzaileak bere gain hartzen du webgunea haren xedearen arabera erabiltzeko konpromisoa.

Erabiltzaileak ezin du webgune honek dakarren informazioaren legezko kontrako erabilerarik egin, eta ezin du webgune honen sistema informatikoak kaltetu edo aldatu ditzakeen ekintzarik egin.

Erabiltzaileek debekatua dute eduki faltsuak edo zehatzak ez direnak sartzea eta komunikatzea, baldin eta errorea eragiten badute edo eragin badietzaiokete Respeto fundazioari edo beste erabiltzaile edo hirugarren batzuei. Erabiltzailea izango da datu horiek komunikatzeagatik eragiten dituen kalteen erantzule bakarra.

Debekatuta dago hirugarren pertsonen datu pertsonalak erabiltzea haien baimenik gabe, eta ezin da hirugarren pertsonen identifikazio-datuak erabili beste pertsona edo erakunderen baten izenean jarduteko edo horren itxura egiteko.

Respeto fundazioak ahalegin guztiak egiten ditu webgune honetako edukiek errorerik izan ez dezaten, eta beretzat gordetzen du haiek edozein unetan aldatzeko eskumena. Respeto fundazioak berariaz baztertzen du webgune honen edukiek izan ditzaketen erroreen edo gabezien gaineko erantzukizuna eta eduki horien egiazkotasunik, zehaztasunik eta gaurkotasunik ezak eragin ditzaketen kalte eta galeren gaineko erantzukizuna.

Webguneak beste webguneetarako estekak eskaini ditzake edo haietarako sarbidea erraz dezake webguneko bilatzaile baten bidez. Respeto fundazioak ez du beren gain hartuko estekatutako webguneekiko erantzukizunik, ezta bilaketan emaitzekiko ere, ez baitu harekiko, haien edukiekiko, haietan eskainitako produktu eta zerbitzuekiko eta gainerako alderdiekiko kontrolirik. Beste informazio-iturri batzuei buruzko informazioa ematea da zerbitzu horien helburua; beraz, erabiltzailearen erantzukizuna izango da, eta harena bakarrik, eduki horietara sartzea eta eduki horien erabilera-arauak betetzea.

Respeto fundazioak ez du bere gain hartuko webgune hau eta haren edukiak erabiltzetik sorraraz daitezkeen kalteak eta galerak, ezta kalte informatikoak edota malware nahiz birusen ondoriozko kalteak ere. Respeto fundazioak ez du ziurtatzen webguneak hirugarren pertsonen sartutako birusik edo bestelako elementurik izango ez duenik eta horiek aldatetako eragin ez dezaketarik erabiltzaileen sistema fisiko edo logikoetan, baina eskura dituen baliabide guztiak erabiltzen ditu horrelakorik gerta ez dadin.

Webgune honen diseinua, konfigurazioa eta hark dakarren informazioa aurretiaz abisatu eta/edo arrazoitu gabe alda edo ezaba dezake Respeto fundazioak, edozein momentutan. Respeto fundazioak ez ditu bere gain hartuko aldaketa horiek eragin ditzaketen kalteak. Hala ere, eskura dituen baliabide guztiak erabiliko ditu aldaketa horien berri emateko erabiltzaileei.

2. Jabetza intelektual eta industrial

Besterik adierazten ez baldin bada, Respeto fundazioarenak izango dira webgune honen, haren orrien, pantailen, informazioen, itxuraren eta diseinuaren, argazkien, irudien, produktu eta zerbitzuen, marken, logotipoen, leloen eta gainerako alderdien gaineko jabetza-eskubideak.

Webgune honetan sartzekak edo nabigatzekak ez dio erabiltzaileari emango Respeto fundazioaren jabetza intelektual eta industrialeko eskubiderik, webgunean sartu eta nabigatzekak ez baitu esan nahi fundazioak eskubide horiei uko egiten dienik, eskualdatzen dituenik edo haiekiko lizentzia oso edo partzialik ematen duenik. Obra hauek baimenik gabe erreproduzitzen, banatzen, merkaturatzen edo eraldatzen badira, urratu egingo dira Respeto fundazioak haien gainean dituen jabetza intelektualeko eskubideak.

Webgune honen titularitatea kaltetuko duen ekintzarik ez egiteko konpromisoa hartzen du erabiltzaileak. Baimenik gabe erabiltzen baldin bada webgune honetako informazioa eta kalteak eragiten bazaizkio haren titularren jabetza intelektual eta industrialeko eskubideei, legez arautzen diren akzioak erabil daitezke, eta, egoerak horretara baldin badarama, akzio horiek erabiltzearen ondorioz zehaztutako erantzukizunak sorraraz daitezke.

3. Aldaketak

Egoki irizten duenean alda ditzake Respeto fundazioak erabilera-baldintza hauek, bai haiek legealdaketetara egokitzeke, bai bestelako hobekuntzak egiteko. Webgune honetan argitaratzen diren unetik aurrera izango dira baliozkoak aldaketa horiek. Respeto fundazioak eskura dituen baliabide guztiak erabiliko ditu egindako aldaketen berri emateko webgunearen erabiltzaileei.

4. Pribatutasun-politika – Datu pertsonalen babesa

4.1. Sarrera

Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko legea, abenduaren 13ko 15/1999 lege organikoa, eta hura garatzeko arauak betetzeko, erabiltzaileei jakinarazten zaie Respeto fundazioaren titulartasunpeko fitxategi batean jasoko direla posta elektronikoko bidez, web formularioen bidez edo webgunean izan daitekeen gainerako bideetatik ematen dituzten datu pertsonalak. Fundazioa izango da fitxategiaren arduraduna, eta haren helburua izango da jasotzen diren kontsultei eta eskaerei erantzutea, zurekin harremanetan jartzea, eskatutako zerbitzuak kudeatzea, merkataritza-harremanak bideratzea eta haren jarduerari dagozkion eginkizun legitimoak betetzea.

Zure datu pertsonalak konfidentziasunek tratatuko dira. Respeto fundazioaren konpromisoa dira erabiltzaileen datu pertsonalen pribatutasuna eta babesa, eta eskura dituen baliabide guztiak erabiltzen ditu interesdun horien segurtasuna eta pribatutasuna bermatzeko. Datu pertsonalen babesaren esparruan indarrean diren arauak betetzen ditu Respeto fundazioak eta Datuen Babeserako Agentziaren Erregistro Orokorrean inskribatuta dago.

4.2. Datu pertsonalen bilketa

Respeto fundazioak ez du datu pertsonalik eskatzen webgunera sartzeko, baina haren harremanetarako formularioaren bidez datu pertsonalak ematen ditu erabiltzaileak. Erabiltzaileak askatasunez eta borondatez ematen ditu bere datu pertsonalak. Eskatutako zerbitzua emateko

beharrezkoa den informazio pertsonala soilik eskatzen du Respeto fundazioak. Respeto fundazioaren webguneak ez du cookie-rik erabiltzen.

Respeto fundazioak ez du datu pertsonalik emango beste enpresa batzuei edo hirugarrenei. Egileak Respeto fundazioaren kolaboratzaile badira, webgune honetan argitara daitezke haien obrak eta izenak.

Respeto fundazioak ekitaldiren bat antolatzen badu (edo ekitaldiren batean parte hartzen eta/edo laguntzen baldin badu), ekitaldi horien irudiak har daitezke edo haien ikus-entzunezko grabazioak egin daitezke. Webgune honetan argitara daitezke datu horiek. Datu horiek tratatu eta komunikatzeko onespena ematen dute ekitaldi horietara joaten diren pertsonak, haietan parte hartzen dutenek edo haietan esku hartzen duten hirugarrenek.

Webgune honetan edukiak (datuak, testuak, bideoak, soinua, argazkiak, irudiak, mezuak eta bestelako materialak) sartzen dituen erabiltzaileak adierazten eta bermatzen du hemen adierazitako baldintzatan sartzen dituela haiek.

Hirugarren pertsonen datu pertsonalak sartzen dituen erabiltzaileak adierazten du haiek onespena eta baimena duela datu horiek argitaratzeko. Erabiltzailea da jasotzen diren datuen egiazkotasunaren eta zuzentasunaren erantzule bakarra, eta Respeto fundazioak ez du inolako erantzukizunik izango horren gainean. Erabiltzaileen egitekoa eta erantzukizuna izango da emandako datuak zehatzak, indarrekoak eta egiazkoak izatea, eta beren gain hartzen dute haiek eguneratzearen konpromisoa.

Webgune honetatik informazioa bidaltzen baldin bada, berariaz ematen da, ekintza horrekin, pribatutasun-politika honetan eta webgunearen erabilera-baldintza orokorretan azaldu diren datuak tratatzeko baimena.

4.3. Interesdunen datuak

Datuetara sartu, zuzendu, ezeztatu eta aurkatzeko eskubideak erabil ditzakezu idatzi bat bidaliz fitxategiaren arduradunari, Respeto fundazioari. Idatzi hori haren helbidera bidal dezakezu —Peña eta Goñi kalea, 9. zk., 4. solairua ezkerrean, 20002 Donostia (Gipuzkoa)— edo posta elektronikoko helbide honetara: respeto@respetofundacion.org. Eskatzailearen nortasun-agiriaren (NAN) fotokopia bat erantsi behar zaio eskaerari.

Eskaera lege-ordezkariren batek egiten baldin badu, nortasun-agiriaren fotokopiaz gain, ordezkapen-ahal hori egiaztatzen duen agiri bat erantsi behar da eskaerarekin.

4.4. Segurtasun-neurriak

Respeto Fundazioak, haren fitxategietan dituen datu pertsonalak tratatzean, antolamendu-neurriak eta neurri teknikoak hartuko ditu haien segurtasuna bermatu eta haiek baimenik gabe aldatu, galdu, tratatu eta erakutsi ez daitezen; betiere, teknologiaren egoerari begiratuta, bildutako datuen izaerari arreta jarrita eta haiek dituzten arriskuei erreparatuta, bai arrisku horiek gizakien ekintzaren ondoriozkoak izan, bai ingurune fisiko edo naturaletik sortuak izan. Hori guztia datu pertsonalak dituzten fitxategien segurtasun-neurrien alorrean indarren den legedia betez egingo da, eta, bereziki, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko lege organikoa eta hura garatzeko arauak betez. Hala ere, erabiltzaileei jakinarazten zaie segurtasun-neurri informatikoak ez direla erasoezinak eta datuetara legez kanpo eta baimenik gabe sartzeko arriskua hor dagoela beti. Hala ere, horrelakorik gertatzen baldin bada, Respeto Fundazioa ez da horren erantzulea izango.

4.5. Indarraldia

Respeto Fundazioak bere pribatutasun-politika aldatzeko eskubidea izango du, haren irizpideen arabera eta legeen edo jurisprudentziaren aldaketetara egokitzeko. Respeto fundazioak aldaketaren bat egiten baldin badu politika horretan, webgune honetan bertan argitaratuko da haren testu berria, erabiltzaileak haren berri izan dezan. Edonola ere, webgunera sartzen diren unean indarrean diren

arauek arautuko dute erabiltzaileekiko harremana. Hori horrela izanda, pribatutasun-politika hau webgunea bisitatzeko bakoitzean irakurtzeko gomendatzen du Respeto fundazioak.

5. Jurisdikzioa

Aplikagarria den legediari buruz eta eskudun den jurisdikzioari buruz indarrean den araubideak arautuko ditu Respeto fundazioaren eta webgunearen arteko harremanak. Hala ere, araubideak foruren baten mende jartzeko aukera emango balie aldeei, politika honen baitan adierazten dute Donostiako epaitegien eta auzitegien mende jartzen direla Respeto Fundazioa eta erabiltzailea, eta berriaz egiten diotela uko legokiekeen gainerako foruei.

Adierazi diren erabilera-baldintzen urraketaren aurka egingo du Respeto fundazioak, baita bere webgunean agertzen diren edukien bidegabeko erabileren aurka ere. Jazarpen hori egiteko, zuzenbideak haren esku uzten dituen akzio zibilak eta penalak erabiliko ditu.